

ANTONIO ZAVALAREN OMENETAN ETA OHORETAN

Denborak etengabe egiten du aurrera. Inoizka besterik iduritzen bazaigu ere, denborak ez du inoiz kerarik ez geldialdirik egiten. Zenbat eta urtez osatuago egon, gainera, hainbat eta zoroagoa eta lasterragoa iruditzen zaigu denboraren joana. Egunen joan-etorri geldigabeari, askotan, azpian hartzen gaituen gurpil errukigabearen tankera hartzen diogu.

Urtebete baino gehiago da Antonio Zavala hil zela. 2009ko urtarrilaren 2an hil zen, eta bezpera-bezperagoan izan ziren, Xabierren, hileta-elizkizunak. Egun hotz bezain argia zen. Nafarroako zero oskarbiak urdin bizi aparta eskaintzen zigun hara hurbildu ginen euskaltzaleoi. Hodeiartzean elurturik zeuden mendi-gailurrak. Nafarroako lautadetara sartzea zero-lurrak zabaltzea bezalakoa zen.

Antonio Zavala laurogeita bat urte egin baino lehenago itzali zitzaigun. Laurogei urte, ordea, bada mundualdi bat. Hainbat bertsolariren bertsoak bildu eta hainbat biografia eragin zituenak bere bizitza biderkatu eta aberastu egin zuen, dudarik gabe. Ahozko literaturaren urreaz aberastu zen neurrian, ondorengo guztiok, euskaldun eta are erdaldunak ere, aberastu zituen. Antonio Zavalak gaztetan, Xabierren bertan, aurkitu zuen, ahozko literaturaren urrea. Xabierren izan zuen Auspoa bildumaren ametsa. Eta ahozko literatura izan zen, beste era batera esateko, Urrezko Adarra.

Urrezko Adarraren elezaharra *Eneidan* agertzen da. Virgilio poetak agertzen duenez, Eneas ibar itzaltsu batean sartu zen uso biren jarraian, eta usoen atzetik doala, ez nondik eta ez handik, argitasun batek liluratu zuen. Argitasun hori ez da besterik Urrezko Adarra baino. Urrezko Adar hori mihurarekin lotzen da, gehienetan. Batez ere sagarrondoaren adarretan hazi ohi da, eta mihuraren dirdirak urrearen tankera izan ohi du. Mihura landare magikoa da herri askotan. Gurean ere bai. Gurean zorte ona ematen zuela pentsatzen zen. Erromatarrek pentsatzen zuten buru gainean aurkituz gero

mihura-adarra, azpian, magia sinpatikoz, altxor bat gordetzen zela. Antonio Zavalak Xabierren bertan aurkitu zuen, harako Eneas hark bezala, Urrezko Adarra. Azkoitiko bere ikasle batek, Alejandro Larrañagak, Larrume Aundi baserrikoak, –artean hamabi urteko mutikoa zena eta gaur egun hirurogei eta zazpi urte izango dituen–, erakutsi zizkion bertso-paperek altxor handiago bat ezkututzen zuten buru logiko batean. Izan ere, pentsatu zuen Antonio Zavalak 50eko hamarkadan, etxe bakar batean bertso-paper sorta eder bat badago, zenbat holako sorta ote daude Euskal Herriko ehundaka eta are milaka bertsozaleren etxeetan? Lehenago ere 1954 urteaz gero bai behintzat, herri literaturaren peskizan ibilia zen, ahozkotasanaren alorrean lanean era bateko eta besteko testigantzak biltzen. Jesuiten eskolan ikasle zuen mutiko hark eskaini zion hari-mutur hari tiraka egin zuela bere bizitza guztia kontatu zuen Antonio Zavalak Deustun *Doctor Honoris Causa* egin zutenean.

Lehenmin eta malenkonia puntu batez irakurtzen da gaur egun Nemesio Etxanizek idatzi zuen “Berrogei ta amar milla bertsoetik gora arkitu ditu aita Antonio Zabala’k” lana. Elkarrizketa honek berrogeita bost urte baino gehiago ditu (*Zeruko Argia* 1964-IV-19). Harrigarria egiten zaigu orduan Nemesio Etxanizek, Antonio Zavala euskal bertso-liburuak indartsu argitaratzen hasi zenean, egin zuen galdera: “Guziok, eta batez ere euskal arloan zarrak giñenok, alako erdi fedez begiratu genion azaldu zenean. Zein ote dek mukizu au? Esan genduen gerekiko”. Galdera hau baieztapen batekin josia zegoen. Hitz bitan esandako artikuluko lehen esaldiarekin: “Euskalerrian beti izan dira bertsolariak; baiña gizon bat bertso egiña ez da oraiñarte ikusi”. Bertso egindako gizon hura orduan hogeita hamasei urteko mukizu jakintsu bat zen, Nemesio Etxanizen lumak jartzen duenez. Eta bilduak zituen bertsoak eta bilduko zituenak txukun argitaratzen eman zuen bere denbora. Auspoa hasi berri hartan, 1961 urte ingurutsuan, baserritar batek hitz mingarri batzuk esan omen zizkion

Antonio Zavalari. Gutxi gorabehera honelaxe esan zion: “Auspoako lehen alea erosi dudanean txakurkume baten jabe ere egin naiz, eta izena ere Auspoa jarri diot. Txakurtxoia erosi eta egun gutxira hil zait ordea, eta zure liburu horiek ere ez dute aurrera segituko”.

Gaur eguneko distantzian esan dezakegu baserritar hark pentsamendu magikoa zeukala eta kolkoan gorde beharrean braustakoan bota zuela barruan gorde beharrekoa. Baina, zorionez, ez zuen asmatu. Auspoa bilduma gero eta indartsuagoa izan da, gero eta urre-arrasto sendoagoa markatu du euskalgintzan. Urrezko Adarrak gero eta altxor handiagoak ekarri ditu, zorionez. Inork ohoratu baditu bertsolariak Antonio Zavalak ohoratu ditu. Bera izan da, Antonio Zavalak maite zuen hitz bat esateko, bertsolarien “sekretario” nagusi. Berak egin du bere bizitzan bertsolari handienen sekretariotza. Bestela esan, erretorika azaletan erori gabe, lotsarik gabe aitor dezakegu Antonio Zavala sekretario apal baten seme izanik, Herri Literatura oso baten sekretario nagusi egin dela, bere guraz eta borondatez. Bere gurariz eta etengabeko ekinez.

Lan isil eta jarraitu horren aitormenez, adiskide baten eskuak utzi zuen, gorazarrez eta maitazarrez ere bai, Xabierko kaperan zein elizan, duela urtebete baino gehiago, Antonio Zavalaren zerraldoaren gainean, Txirritaren bertso-liburu bat: *Ustu ezin zan ganbara*.

Auspoa bilduma ez da hil, bere bidea aurrera darama. Antonio Zavalak bete zuen ganbarako aleetatik, bildu zituen sagar aleetatik sagardo berri txinpartatsua aterako da. Ebaki zuen bideak fruitu berriak emango ditu. Auspoa saileko lehen liburua Ramon Artolaren bertsoz osatutako *Sagardoaren graziya eta beste bertso asko* izan zen. Antonio Zavala itzali ondoren ere, azken urte honetan, Auspoa liburutegian ale mordoskada bat agertu da: Jose Manuel Arriolaren *Mondragoiko kalezañaren bertsoak* (Auspoa 312), Nikolas Aldaik eta Pello Esnalek prestatutako *Uztapide bat-batean* (Auspoa 313), Manuel Olaizola “Uztapide” bertsolariaren *Lengo*

egunak gogoan lanaren berrinprimaketa (Auspoa 314), Kruz Azkarateren *Ondorengoak jakin dezaten* (Auspoa 315), Patxi Iraolaren *Naizen apurra* (Auspoa 316), Txomin Garmendiaren *2008 nere egunkaria* (Auspoa 316). Izan ere, joan zaigun 2009 urtea Manuel Olaizola “Uztapide” (1909-1983) bertsolariaren jaiotza mendeurrena izan dugu eta zer omenaldi hoberik Auspoa sailak *Lengo egunak gogoan* 1975ko autografia zoragarriaren bi aleak liburu bakar batean argitaratzea? Zer omenaldi hobeagorik bere bat-bateko jardunetako saiorik ontxoenak liburu batean eskaintzea CD eta guzti?

Liburu berriak aterako dira. Auspoa sailak bere sortzaileari ez ezik, Euskal Herri osoari ere ohore egiten diolako.

Jabier Kaltzakorta,
Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordeko kidea